

Anbrosia Olabide udal eraikina konpontzeko lanak hasiko dira laister

- **Eraikinaren inguratzailea konponduko da, besteen artean, itoginak saihesteko.**
- **Urtebeteko iraupena izango dute lanek.**

Andoainen, 24-04-29.- Datorren maiatzaren 13an Anbrosia Olabide eraikineko fatxadan lanak hasiko dituzte; zehazki, eraikinaren inguratzailea da konponduko dena.

Garrantzi handiko lana da, besteak beste, eraikina babestu eta egungo itoginak saihestea ahalbidetuko duelako. Gaur egun, besteen artean, Gizarte Zerbitzuetako udal lansaila eta Udal Artxiboa kokatzen dira; hortik eraikina babestearen garrantzia. Udal ondarea babesteko neurrien artean egingo dira lan hauek.

Urtebeteko iraupena izango dute lanek.